

Andolin gogoan.
Essays in honour of Professor Eguzkitza

Beatriz Fernández & Itziar Laka (arg.)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ARGITALPEN ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiazea, bai eta berorri tratamendu informatikoa ematea edo liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta copyrightaren jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Liburu hau Euskara Errektoreordetzaren laguntzari esker argitaratu da; argitaratzaileek BFF-2002-10379-E ikerkuntza proiektuaren laguntza jaso dute.

© 2006, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 84-8373-890-2

Lege gordailua: BI-3123-06

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)


Index

Andolin gogoan.....	13
Andolin en el recuerdo	19
Memories of Andolin	25
Sintaxi partziala	
I. ADURIZ, M.J. ARANZABE, J.M. ARRIOLA ETA A. DÍAZ DE ILARRAZA.....	31
Lexicalization and multiword expressions in the Basque WordNet	
ENEKO AGIRRE, IZASKUN ALDEZABAL AND ELI POCIELLO	51
Licit and illicit ergative-dative pairings	
PABLO ALBIZU AND BEATRIZ FERNÁNDEZ	69
Lauaxetaren kazetaritza	
XABIER ALTZIBAR	97
Is Basque morphologically ergative? (I): The semantic (i.e. split-intransitive) case-marking system of Western Basque	
GONTZAL ALDAI.....	117
Hizkuntzen iraupenari begira: hiztun-kopuruaren inguruan hainbat datu eta hausnarketa	
<i>Amaraura</i> ikerketa-taldea: ANDONI BARREÑA, BELEN URANGA, ESTIBALIZ AMORRORTU, ITZIAR IDIAZABAL, ESTIBALIZ IZAGIRRE ETA ANE ORTEGA	139
Heiagora-perpauak: euren egituraz eta hautapenaz	
XABIER ARTIAGOITIA	155
Hannibal Codret eta Etxeberri Sarakoa: latina euskaraz irakasteko ikasliburua XVIII. mendearen hasieran	
GIDOR BELBAO.....	179

Possessive constructions in Greek Aromanian HÉCTOR CAMPOS	205
Euskararen sintaxi akusatiboaz ohar batzuk JEAN-BAPTISTE BATTITU COYOS	221
Marcas de predicación en vasco LUIS EGUREN	233
Foko azentuak eta foko semantikoak bat egiten ez duten zenbait kasuren azalpen bate- rantz ARANTZAZU ELORDIETA	251
Spanish Pitch Accent Alignment by Northern Bizkaian Basque Speakers GORKA ELORDIETA	269
Euskarazko hitz hurrenkera desberdinak prozesatzen KEPA ERDOZIA	291
Lore-jokoak: 1853-1917 BEGOÑA ERRASTI	307
Tipología semántica de los nombres escuetos. El caso particular de los nombres escuetos singulares countables MARÍA TERESA ESPINAL Y CARMEN DOBROVIE-SORIN	327
Diversidad sociolingüística en Colombia MAITENA ETXEBARRIA	347
<i>Itzuleraren hipotesia</i> : jabekuntza eta afasiaren erkaketa MARI JOSE EZEIZABARRENA ETA ITZIAR LAKA	367
Ironiaren oinarri linguistikoa FERNANDO GARCIA MURGA	383
BEHAR-en lekua euskal hiztegia eta gramatikan PATXI GOENAGA	397
Anbiguotasunaren ebazpena euskara-gaztelania elebidunengan EIDER GUTIERREZ	417
Variación dialectal y periferia izquierda M. LLUISA HERNANZ Y GEMMA RIGAU	435
Esaldiaren informazio egitura: unitate eta kontzeptu arazo BITTOR HIDALGO	453
Polypersonal agreement, convergent evolution and the Basque-Caucasian hypothesis ARTHUR HOLMER	477
Laringalak eta euskal azentuaren bilakaera JOSÉ IGNACIO HUALDE	497

Pronombres sujeto en construcciones impersonales de lenguas iberorrománicas GEORG A. KAISER	513
Teasing apart the middle PAULA KEMPCHENSKY	531
Elkar-en-inguruko gogoetak XABIER KINTANA	549
The Development of WH-Constructions in Basque-Spanish Bilingual First Language Acquisition NOEMI KINTANA AND JURGEN M. MEISEL	555
<i>Jaun eta jabe, jaio eta herio, jin eta joan ...</i> : etimologia eta aditz morfologia zaharraz (Hitz hasierez II) JOSEBA A. LAKARRA	575
«Gauza» hitza: semantika eta pragmatika arazo LUIS MARIA LARRINGAN	613
Dependencia de la estructura y complejidad computacional VÍCTOR M. LONGA	633
Fronteras lingüísticas ÁNGEL LÓPEZ	651
Non dago ahozko jardunaren adierazgarritasuna? Erakusgarri batzuk Elgoibarko euska- ratik JESUS MARI MAKAZAGA	663
Análisis estativo de sucesos JUAN CARLOS MORENO	679
Adizki jokatueto -ki- morfemaz JOSE ANTONIO MUJICA	697
(Basque) Natural Noun Phrases for Artificial Languages JUAN CARLOS ODRIOZOLA	707
Nominalizazioak eta modua: aukera modal bikoitzeko predikatuak JON ORTIZ DE URBINA	725
DSaren barneko zenbait ordena kontu BEÑAT OYHARÇABAL	741
Language, meaning and interpretation: Chomsky against the philosophers CARLOS P. OTERO	757
A New Look at Northern Basque <i>Wh</i> -Free Relative Clauses GEORGES REBUSCHI	779
Gramatikalizazioa KARMELE ROTAETXE	799

Does L1 syntax affect L2 processing? A study with highly proficient early bilinguals MIKEL SANTESEBAN AND ALBERT COSTA	817
Predication with Characterizing Sentences in Spanish ESTHER TORREGO.....	835
Labaienen eta Zannetoren formulen karietara PATXI SALABERRI.....	855
Euskara batuaren norabideaz JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI».....	869
Euskal sekuentzia bokalikoen agerpena eta erabilera ITZIAR TÜRREZ ETA ALEXANDER IRIBAR.....	877
The future of Linguistics in this Millennium JUAN URIAGEREKA.....	885
Specialised Discourse and the Linguistic System of Basque IGONE ZABALA AND AGURTZANE ELORDUI.....	895
Perpaua egituraren urraketak euskaldun goiztiar eta berantiarrengan <i>Gertaerei Loturiko Potentzialen bidez</i> ADAM ZAWISZEWSKI	915



Andolin Eguzkitza (Zaldi Erok egina)

Labaienen eta Zannettoren formulen karietara

Patxi Salaberri Muñoa

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Abstract

Labaienek Iruñean eta Zannetok Erroman, biek lortu dute xvii. mendeko euskal letren esparruan, editore batek otoitz eta formula kateketiko bakan batzuekin inoiz esperoko ez zukeen protagonismoa. Lehena, 1614an argitaratutako dotrina gisako baten zatiekin eta bigarrena, berriz, «kredo» xume batekin, biak agertzen zaizkigu euskal literatura kontrarreformistaren ibil-inguruetan barneratzeko giltza. Ereduak, kontzeptuak, euskalkiak, hizkera... guztien informazioa eskain dezakete haiek argitaratuek eta, dagoeneko, eskaini ere egiten dute, hutsune eta gabezia askotxorekin bada ere. Ildo horretatik, artikuluko honek Labaien eta Zannetto editoreek argitaratu testuak hartu ditu gaitzat eta materialaren osaketa eta berreraiketa saio bat eskaini, ondoko orrialdeetan. Aldi berean, garai hartako bestelako otoitz eta formula ospetsuekin erakusten dituzten antzak eta desberdintasunak jorratu dira bertan. Nabarmentzekoa da katiximen oihanean azaleratzen diren ahaidetasunak.

0. Angel Irigaray izan zen 1963an argitaratu artikuluko batean¹ Eltsokoarena izan zitekeen testu baten berri eman zuena. Ezaguna denez, Santxo Eltsokoak 1561an argitaratua zuen *Doctrina* galduak betidanik sorrarazi du ikertzaileen aurkitzeko irrika.

Irigarayk bi argazkitan ematen zuen aurkikuntza. Nabarmena da bietan liburuaren pergaminozko azalari erantsitakoa ez dela orri bat, bera eta bakarra, orrialde zenbaitekin osatutako puzzlea baizik. Honela deskribatzen zuen: «unos trozos impresos de una doctrina en romance y vascuence, que se han conservado hasta hoy adheridos a la pasta de un hermoso libro de 214 folios, impreso en 1614, con cubierta de pergamino y titulado: *Recopilación de todas / las Leyes / del Reyno de Na / varra... por el licenciado Armendáriz... Impresas en la muy noble y muy leal ciudad de Pamplona. 1614. Por Carlos de Labayen. Impressor*» (Irigaray 1963:249).

Orotara zati erantsi horiek orrialde baten tamaina zuten (27 cm × 15 cm), orriaren alde bietatik inprimatuak, eta dotrina-utzikina bezalako zerbait zirela zio-

¹ «¿Se trata de la Doctrina de Sancho de Elso?», *Príncipe de Viana* 92-93, 249-253.

en artikulugileak. Edonola ere, azalak jatorrizkoak ziren (edo ziruditen) heinean, dotrina-zatiak ere koadernaketa burutu urtea baino lehenagokoak izango ziren: «este impreso puede muy bien ser de fines del XVI o comienzos del XVII» (*idem*).

Garrantzi handiko datua honako hau, gogoan hartzen bada testuan azaltzen zen euskalkiko² lehenengo dotrina ezaguna Beriainena zela, hots, hamabi urte beranduago argitaratutako *Doctrina christiana* (1626) izenekoa.

Irigarayren iritziz, Beriainen liburua eta aurkitutako zatiak erkatu ondoren, eta kointzidentzia handiak zeuden arren, formatua eta testuak zeharo desberdinak zirela ondorioztatu behar zen. Artikuluaren tituluak iragarritako hipotesia bazterturik («no podemos aventurarnos a identificarla como la de *Sancho de Elso*, puesto que sospechamos que entre esa desconocida y la de Beriain han debido de haber aparecido doctrinas diferentes impresas en vascuence de Navarra, que no han dejado más rastro que las vagas citas referidas al Obispo de Pamplona Venegas de Figueroa, como editor o promotor de ellas, alrededor de 1600»; *idem*), handik mende luze batera euskalki hartaz baliatuko zen Elizalderen liburuxkarekin erkatzea baino ez zitzaion geratzen. Ondorioa, halaber, garbia izan zen Orozen iritzirako: «El afortunado autor del artículo coteja los trozos de ese hallazgo [...] con los dos únicos catecismos antiguos existentes en vascuence navarro meridional, el de Juan de Beriain, de 1626, y el de Elizalde, de 1735, constatando que los textos de los tres son diferentes» (Oroz 1980:15; gurea da letrakera etzana).

Era berean, Beriaingo autore honek ere argi utzi zuen iritzia: «creemos firmemente, aunque sin hacer de ello un dogma, que no es un fragmento de la doctrina de Sancho de Elso, con lo que no queremos excluir que el texto pueda coincidir con el de esa obra y estar basado en ella» (Oroz 1980:16). Are gehiago, beste arrazoiren artean, tipografiari ere Eltsokoari zegokion garaikoa baino beranduagokoa iritzi zion.

Ezin, bada, idazlana Eltsokoari «leporatu».

Edukiari zegokionez, dotrina baino gehiago, dotrina baten laburpena iruditzen zitzaion Orozi Labaienen edizioaren azalean aurkitutakoa. Azken hipotesi gisa, edizio akastuna edo proba moduko zerbait izan ez ote zen planteatu zuen beriaindarrak.

Harrezkero, guk dakigula, Sarasola izan da testu haiekin ausartu den bakarra, euskaraz agertzen ziren zatiak transkribatu baitzituen 1983an. Halere, erdarazkoekin batera, euskarazko zati argigarri batzuk ere utzi zituen transkribatu gabe, eta hori da hemen aurkeztu nahi genukeena.

1. Hasierako begiradan bederen, eta gorago ere esana dugu, testua puzzle gisako bat da. Beste nonbaitetik hartutako adabakiekin osatutako orrialdea.³

Hori dela eta, arreta handia behar da zati guztiak bereizteko eta, jatorrizkoa gabe eta argazkietan bakarrik oinarriturik, testua berreraikitzeke.

² Honako hau zioen hizkerari buruz: «Es *alto navarro*, si no auténtico *meridional*, probablemente el que se habló en Pamplona y Zona media» (*idem*).

³ Baldin testu-zatiak dakartzan liburuaren datazioa (1614) onartzen bazaie haiei ere, logikoa da pentsatzea editore bera (Carlos Labaien izenekoa) izan zuela testuki pila honek ere, koadernaketetan erabiltzen zen materiala inprimategian sobratutako edo baztertutakoa izaten baitzen.

Oro har, eta azterketaren lehendabiziko ondorio gisa, esan behar da argitalpen hartan euskarazko bertsiolari gaztelaniazkoari baino garrantzi gehiago eman zitzaioela, horrek adierazten duen guztiarekin.⁴ Batetik, euskal testuak lehendabiziko tokian agertzen dira eta, ondoren, gaztelaniazkoak, betiere «En Romance» errotulua daramatelarik. Interesgarria da datua, zeren eta euskarazkoak ez baitu inolako errotulurik otoiaren izendapenez gainera. Hizkuntza hedatuenaz eta argitalpen honetarako lehenetsiaz mintzatuko litzateke hori.

Tipografiaz den bezainbatean, bestalde, karaktere mardul eta sendoagoak eskaintzen zaizkie euskarazko formula eta otoi guztiei.

Erantsi behar da, halaber —eta orain liburuxkaren lodi-meheaz ari gara—, orri bat bi aldetatik betetzeko materia baino eskaintzen ez duen arren, hainbat orrialde erabili behar izan zirela han dagoena eta, agertzen denaren arabera, falta dena jaso ahal izateko. Eta hori izenburuari, ohiko dedikatoria-baimenei edota hasiera-amaierako bestelakoei eskaini ohi zitzaizkien orrialdeak gogoan hartu gabe.

Nabarmentzekoa da, era berean, orri baten aurreko aldetik atzealdera igarotzeko geratu den trantsizio-hitza. Orrialdearen goitik beherako eredu eta antolamendua erakusten dituen horretan, esaterako, beste aldeko hasiera-hitzaren iragarpena egiten duen «dia» da azken hitza, azken lerroaren amaieraren azpian jartzen den hitza, alegia. Besteak beste, orrialdeen neurriez ere mintzo zaizkigu hitz horiek.

Beraz, horretatik eta islatzen dituen proportzioetatik formatua ondorioztatu ahal bada, tamaina txikikoa zela esan beharko genuke, 14 x 9 cmko eredutik hurbil. Txikia, merkea eta erabilgarria.

Edukiari dagokionez, gure egunetara iritsi den orrialde horretan ez da ohiko dotrinatxo⁵ batek izan ditzakeen otoi eta formula baino gehiago eskaintzen. Eta jatorrizko liburutxoak besterik izan bazuen ere (Materrek aipatzen duen «declaratio» bezalakoak eta), ez bide dago jakiteko modurik.

Gainerakoan, garaiko dotrinatxo gehien ildoko banaketa erakusten du dotrinatxoak. Baina lehenengo lau otoi-formulak beti orden berean joaten ziren arren («Aitagurea», «Agurmaria», «Kredo» eta «Salbea»), ez dago hain garbi hurrengo ondozkapena. Testu honek euskal literaturaren barruan garaikide edo izan zituen Betolazak eta Beriainek, esaterako, «Artikulu Fedezkoak» jartzen dituzte lehendabizi. Ez da ohikoena, halere. Astete-Ripaldetan, Materren liburuan, Kapanagarenean, Elizalderenean... gehienetan alegia, «Jainkoaren Legearen Man-

⁴ Darabilen euskara mota dela eta, hemen planteatzen ari zaigun kontuari erantsi lekiokien arrazoi soziolinguistiko garrantzitsu bat eskaintzen du Beriainek: «yo escribo el que se habla en Pamplona, Cabeça deste Reyno, y Obispado de Navarra, que es el que se habla en la mayor parte del, donde se habla bascuence, y el que mejor se entiende en todas las partes» (Beriain, *Tratado de como se ha de oyr Misa, escrito en Romance, y Bascuence*, «Al Lector» hitzaurrearen ifrentzuan, 1621; gurea da letrakera etzana). Beraz, gure literatura elebidunaren historian euskarak lehenetsia du lehendabiziko aldiz.

⁵ Dotrinak eta katiximak kidetzat hartu ohi dira esanahiari dagokionez (ikus Resines 1997:11). Horrelakoei, ezaguna da, kristauak buruz ikasi behar dituen otoiak eta formulak jasotzen dituzte lehen atalean, eta galdera-ihardespenei bidezko «deklarazio» edo azalpenak bigarrean. Horretan, bada, sinonimotzat hartuko dira hitz biak hemen. Halere, artikuluan barrena bereizketen beharrik suertatuko denez gero, «dotrinatxo» hitzarekin izendatuko dugu otoi eta formula hutsak biltzen dituen katiximaren lehenengo atala.

damenduak» datoz lehendabizi eta, gero, gorabehera gehiagorekin, «Artikulu fedezkoak», «Elizaren Mandamenduak», etab.

Esku artean dugun liburutxoak honako atalak erakusten ditu: «Konfesio Generala», «Aitagurea» — «Pater noster» idazten du autoreak —, «Agurmária» — «El Aue Maria» dio berak — «Sinisten dut» delakoa — testuan «Credo» bezala identifikatua —, «Salbea», «Artikulu Fedezkoak», «Jangoikoaren Lege Sanduaren Mandamentuak» eta «Elizaren Mandamentuak». «Konfesio Generala» kenduta (atzera eramaten baita normalean), Betolazak eta Beriainek egiten duten ondozkapen bera da (azken honek euskarazko bertsioan bakarrik, erdarazkoan «Mandamentuak» lehenago ematen ditu eta).

... Erabilitako material kopuruari begiratu bat emanez gero, eta baldin Betolazarena erreferentzia gisa hartzen bada, zinez pentsa daiteke aitagurea, agurmaria eta kredoaren zati bat jasotzen dituen orrialdea (goitik behera zatituta dagoena) dotrinatxoaren bostena edo gutxiago izango zela. Erantsita «deklarazio»-rik ez bazeraman behintzat, zortzi bat orrialdekoa, beraz (ohiko «kartilla» bame).⁶

2. Esana dugu dagoeneko Sarasolak egin zuela dotrinatxoaren euskarazko zatien transkribaketa (1983:251-254). Dotrinatxoaren azterketa eta litezkeen lehen erkaketak egiteko egokia.

Guztiarekin ere, testu guztiaren antolamenduaz jabetu ahal izateko eta bestelako dotrinatxo eta katiximekin batera erabiltzeko, derrigorrezko deritzogu gaztelaniazko bertsioa ere transkribatuta eskaintzeari. Transkribatu eta formatua alibait gehien zaindu, alegia (testua ezkerrean edo eskuinaldean lerrotatuta bazihoan, tokia mantenduz, etab.).

Honako transkripzio honek, halere, testua ulertaraztea bilatzen du. Hein horretan, bada, ezinbestekoa izango da falta diren atal zenbait «osatzea», horretarako garaikide (eta ez hainbeste) zirenen testuetara jo behar bada ere. Esan gabe doa behar bezala adierazirik geratuko dela jatorrizko testuari ez dagozkion hizkiak, hitzak eta pasarteak.

⁶ XVI. mendeko katiximetan ohikoa zen lehendabiziko orrietan irakurtzen eta idazten ikasteko abedario-silabario bat («kartillatxo», alegia) agertzea. Ez zuen harreman zuzenik izaten katiximarekin. Ikus, esate baterako, Leizarragarena (ABC...) eta Betolazarena.

(DOTRINATXOA)⁷/PATER/ NOSTER⁸

.....Ceruetan çaudena, santificabedi
di çure erreynua. E-
borondatea Cerua[n] beçala lurrea[n]
 ema[n]draçaguçu egu[n]
 çorrac. guc barcat-
 rduney. Eta ezçayt-
 era; aytçitic, begui
 Amen.

.....las oraciones
s, vidi... y desse
conuienen, las

/EN/ ROMANCE⁹

.....ificado sea el
u voluntad
de cada
 dia¹⁰

dia, danos lo oy, y perdona nos nuestras deu.....
 como nosotros perdonamos a nuestros deud.....
 traygas en tentacion mas libranos del.....

⁷ Marken esangura: (); barruan dagoena artikulugileak erantsia da; //: marka hauek barruan daramaten izenburu gisakoa testuaren osotasunetik inferi daiteke; [n]: aurreko hizkiak sudurkariaren marka daramala adierazteko; : falta diren testu zatiak adierazteko; *letrakera etzana*: hitz batean bizpahiru letra baino ez direnean inferitu-erantsiak.

⁸ Irigaray ez zuen antzekorik aurkitu garaiko literatura kateketikoan (Irigaray 1963). Guri, berriz, ez zaigu hain urrutiko iruditzen Beriainen bertsioa: «Ayta gurea, ceruetan çaudena, santifica bedi çure yçena; etorri bedi çure Erreñua guregana eguin bedi çure vorondatea, çeruan bezala lurrean ere; gure egun orosco oguia eman draçaguzu egun, eta barca drazquiguçu gure zorrac, guc barcaçen dizquiotegun bezala gueuren zorduney; eta ezçayçaçula utci tentacion erorcera aytçetic libra gayçaçu gayzetic. Ala dela» (Beriain, *Dorina...*, 84). Azken esaldian, halere, hurbilago dago Materrenetik: «Eta ezçaitçaçula utz tentamendutan errortcera: aytçitic beguira gaitçaçu gaitçetic. Biz hala Salbatçailla» (Materre, *Dotrina...*, 2).

⁹ Interesgarria da gaztelaniazko bertsioaz Orozek apuntatzen duena: «[...] la versión documentada en el fragmento, en la parte romance (*traygas en tentación* delakoaz ari da), no reproduce un texto cualquiera, sino que refleja una traducción ciertamente arraigada antes de la 'oficial' que se ha conservado hasta nuestros días. No creemos, sin embargo, que esta constatación sea argumento suficiente para retrasar la fecha de impresión de esos fragmentos hasta el Concilio de Trento; por el contrario no nos extrañaría lo más mínimo el que, a grandes rasgos — y acaso hasta en detalles —, correspondiera el tenor de esa versión a la de Sancho de Elso, y ello para ambas lenguas» (Oroz 1980:22, 26. oharra).

¹⁰ Orrialde amaierako hitza da, hurrengoaren hasierakoa iragartzen duena. Orozek adierazten zuenaren kontra (1980:17), hemen ez da ezer arrarorik.

EL AUE MARIA¹¹

I Angoycoac salvaçaytçala Maria gr.....
 tea, laun.....
 teen artea.....
 fructua, Ies.....
 otoyç eguiçu gu becatariengatic or.....
 re eriotçeco orduan. Amen.

EN ROMANCE¹²

Dios te salve María llena de gracia el S.....
 go, bendita eres entre las mugeres y.....
 fruto de tu vientre, Iesus. Santa María virg.....
 Dios, ruega por nosotros pecadores, aora.....
 nuestra muerte, Amen.

CRedoaren oracio ohec erra.....¹³
 stioari si.....
 çeyñetan ba
 culo fedezco.....

CREDO¹⁴

SInestatcen dut Iangoyco ayta gu.....
 soan ceruaren eta lurraren creado.....
 Iesu Chris me bacoytçar.....
 launare n concebitu bay.....

.....aren obraç: Iayoçen Virgîña Maria-
aric: passatuçuen..... dolozco
Pilato juezaren az..... crucificatuçen
tçiçen, jautssiçen iffer.....uetara, yurga-

¹¹ Oraingoan ere, Beriainen da bertsio honetatik hurbilen dagoena: «Iangoycoac salva çayçala, Maria gracias betea launa da çurequi. bedeycatua çara emazten artean: eta bedeycatua da çure sabeleco fructua Iesus Santa Maria Iangoycoaren ama, otoyç eguiçu gu becatarien gatic oray, eta gure heriotçeco orduan, Ala dela» (*Doctrina...*, 85). Bukaeran nabarmena da Pedro Canisiok 1560 inguruan sortu omen zuen eta aurrerantzean otoizetan fosiildurik geratuko zen «nunc et in hora mortis nostrae» esaldiaren presentzia, Etxaberen bertsio zaharkituak ez dakarrena hain zuzen (1607ko edizioa, 58).

¹² Hitz bat edo beste kenduta, egungo bertsio bera da.

¹³ Agurmariaren atzetik bide datozen hitz hauek ondoko kredoaren sarrera hitzak dirudite.

¹⁴ Inoiz besterik esan bada ere, Beriainen bertsioa dugu berriro ere hurbilena: «Sinestatçen dut Iangoyco ayta gucis poderosoan, çeruaren, eta lurraren creadorearen, eta Iesu Christoren aren Seme baco-yçaren gure launaren baytan: çeyn concebitu baytçen Espiritu Sanduaren obras, eta jayo çen Virginia Maria-ren baytatic: passatu çuen Passio doloroscoa, Poncio Pilato juezaren azpian crucificatu yçandu çen yll çen, eta orci çuten: jautssi cen iffernuetara, yrugarren egunecan illetaric resuscitatu çen: igan çen çeruetara, eta jarriric dago Iangoyco Ayta gucis poderosoaren escuyan, andic etorrico da vicien, eta illen juzgaçera: sinestatçen dut Espiritu Sandua baytan, dela Eliza sandu Catholicoa, Sanduen comunicacioa, becatuen barca-cioa, araguiaren resurreccioa, eta vicitece secularco. Ala dela» (Beriain, *Doktrina...*, 85-86). Desberdintasunik deigarriena azken perpausarekin lotutakoa da: Beriainek eta ondoko autore nagusi gehienek ez bezala, he-men inesiboaren beharra du «Sinestatçen dut» delakoak: «catholican», «comunioan», «[barkaz]ioan».

.....can illetaric resuscitatuçen, ygançen
a eta jarriric dago Iangoyco Ayta po
en escufiean: nondic etorrico bayta
itçiçen juzgaç nestatçen dut Es-
dua baytan, E ndu catholican,
comunioan bec ioan, ge
ulaco.....

/SALVE/¹⁵

.....
 perança Iangoycoac salvaçayç.....
 yeç gaude Euaren.....
 na gaude suspiraç, ay.....
 lle nigarrezco onet.....
 çure begui misericor.....
 re gana, eta desterru.....
 guçu Iesus çure sabe.....
 O clementea, o.....
 Maria. Amen.

/EN ROMANCE/

Dios.....

/ARTIKULU FEDEZKOAK/

/DIBINIDADEARENAK/

.....dua..... Ayta, Semea, eta Espiritu Sa[n]dua
diragoyco bat eta yrur persona.
 Bortçgarrena sinestatçea Iangoycoa dela
 Ceruaren eta lurraren Creadorea.
 Seygarrena sinestatçea dela Saluadorea.
 Cazpigarrena sinestatçea dela Glorifica¹⁶

¹⁵ Agurtze-moduagatik (agurmariaren agertzen den bera), Beriainen ildokotzat har liteke «Salbea» ere. Tamalez, Utergakoaren liburuan desagertu egin ziren formula horri zegozkien orriak. Ezagutzen ditugunen artean, Elizalderena da gehien hurbiltzen zaiona: «Jangoycoac salvazaizala Erreina misericordiarren Ama, vicice, dulzetasuna, eta gure esperanza. Jangoycoac salvazaizala: zure gana deyes gaude, Evaren Seme desterratuoc, suspiros, ayes, eta negarres negarresco valle ontan. Ea bada gure Abogada itzulizazu gure gana zeure vegui misericordiasco oyec: eta desterru onen buruan eracutsidazaguzu zeure sabeleco fruitu Jesus bedecatu ori. O Clementissima! O Piadosa! O Dultze Virginia Maria Jangoycoaren Ama Sandua, otoiz eguizu gure gatic, mereji dezazguigan Jesu-Christoren prometimetuac, Amen Jesus» (Elizalde, *Apezendaco...*, 7). Ezer azpimarratzekotan (zahar kutsua?), Betolazaren formularen agertzen den sintagma batekin duen antza: hemengo «[va]lle nigarrezco onet...», Betolazarenean «erri negarrezco onetan» azaltzen baita (ik. Arana Martija 1986:517).

¹⁶ Konstantea da dotrinatxo guztietan: «criazalea», «salvazalea», «glorificazalea» (Elizalde, *Apezendaco...*, 10-11) agertzen diren bezala azaltzen dira «creatçaillea», «salbatçaillea», «lorificatçaillea» (Materre, *Doctrina...*, 13) edo «Criadorea», «salvadorea», «glorificadorea» (Kapanaga, *Doctrina...*, 10; Zubia in Sarasola 1983, 282). Azken hauen ildokoa litzateke, beraz, Labaienen edizioa dirudien honetakoa ere.

/HUMANIDADE SANTUARENAK/¹⁷

.....MA.....
ristore Salua.....
ren

Zazpigarrena sines.....
 dela illen eta bitcien j.....
 fede sandua beguiratu.....
 dueney emateco parad.....
 Eta gayztoey aren fed.....
 tu eta obratuduteney.....
 diraden *seculaco* penac.

EN ROMANCE¹⁸

/PERTENECIENTES A LA DIVINIDAD/

/PERTENECIENTES A LA SANTA HUMANIDAD/

.....creer que resucito al tercero dia.
sexto creer que subio a los Cielos, y esta assenta-
ra de Dios padre todo poderoso.
er que vendra a juzgar los viuos y los

¹⁷ Galduta dauzka Beriainek fedezko artikulurik gehienak. Dena den, harenean iraun duen zapigarrena oso da desberdina: «Zazpigarrena sinestatzea andic etorrigo dela vicien, eta illen juzgatçera, oney aren fedea sinestatu, eta Mandamentuac beguiratu dituzteney emateco gloria, eta gayztoey çeren ezpaytuzte beguiratu aren Mandamentu sanduac emateco iffenuco *seculaco* penac» (89 zenbakiarekin agertu arren, 88 orria da). Nabaria denez, Beriainen, Betolazaren eta autore gehienek «gloria»-ren ordez, «parad[isua]» ulertu behar bide da hemen. Ikustekoa dago ez ote den hitz hori ere dotrinatxo zaharren (Trento aurrekoen?) aztarna arkaikoren bat, «illen eta bitcien» delakoan atzematzen den ordena izan daitekeen bezala (Betolazak «hilac, eta viciac» darabil; Materrek «hilen eta bicien»; Kapanagak «ilaen eta vicien» eta «ilac eta viciac»). Bestelako adibideak direla eta, Sarasola ez da horretatik konklusiorik ateratzearen aldeko (1983:122).

¹⁸ Begi bistakoa da atal honetan Asteteren Fedezko Artikuluaren ildotik abiatu dela egilea. Honela dio Beriainen bertsiok: «Los Articulos de la Fè son catorze. Los siete [primeros] pertenecen a la Divinidad, y los otros siete a la santa Humanidad de nuestro Señor Jesu Christo, Dios y hombre verdadero. / Los que pertenecen a la Divinidad son estos. / El primero, Creer en un solo Dios verdadero, todo poderoso. / El segundo, Creer q[ue] es Padre. / El tercero, Creer q[ue] es Hijo. / El cuarto, Creer que es Espíritu Santo. / El quinto, Creer que es Criador. / El sexto, Creer que es Salvador. / El setimo, Creer que es glorificador. / Los que pertenece[n] a la santa Humanidad, son estos. / El primero, Creer que nuestro Señor Jesu Christo en qua[n]to hombre fue concebido por el Espíritu Santo. / El segundo, Creer que nació de santa Maria Virgen, siendo ella Virgen antes del parto y en el parto, y despues del parto. / El tercero, Creer que recibio muerte y passion por salvar a nosotros pecadores. / El quarto, Creer que decendio a los infernos, y sacò las animas de los Sa[n]tos Padres, que estavan esperando su santo advenimiento. / El quinto, Creer que resucitò al tercero dia de entre los muertos. / El sexto, Creer que subio a los cielos, y está asentado a la diestra de Dios Padre, todo poderoso. / El setimo, Creer que vendrà a juzgar los vivos, y los muertos, conviene a saber, a los buenos para darles gloria, porque guardaron sus santos Mandamientos, y a los malos pena perdurable, porque no los guardaron» (Beriain, *Doctrina...*, 6-7; letrakera etzana Labaienen edizioak Beriainenarekin duen kidetasuna adierazteko baino ez da jarri hemen).

.....iene a saber, a los buenos para darles
e guardaròn sus santos mandamien-
malos pena perdurable, porque no los

/LEGE SANTUAREN MANDAMENDUAK/¹⁹

..... legue sanduaren
entuac.
nduaren ma[n]dame[n]ruac, Chris
ratu bearduenac.
en legue sanduaren manda-
entuac amar dira.
gauça gucien gañean Iangoy-
 coa onetsi dezagula.
ame[n]duric vanoro eztaguigula.
ygandeac eta jayac beguira

ayt eta ama onrraditçag.....
garrena, yorr il etzte.....

igarrena yori.....
ztrazogula.
gula.
rrena, la[-]
gula.
rena,
ula.

Amar mandamentu sandu ohec encerr.....
 cen dira bidaran, Iangoycoari gauza.....
 cien gañetic oneritçean: eta gueuren p.....
 ximo laguna gueuren buruac bezala²⁰.

¹⁹ Oso da interesgarria Hamar Aginduen formula hau. Gaztelaniazkoan ez bezala (aginterako singularreko bigarren pertsonan baitaude taxututa), euskarazkoan pluraleko lehen pertsonan adierazita daude agindu guztiak, mezua zuzenean gabe, zeharka datorkigula adierazi nahi izango balitzaigu bezala. Ez da hau maizegi azaltzen den ezaugarria, nahiz eta, dagokigun garaian, Materrek eta Beriainek ere erabiltzen duten. Gugandik hurbilago, erronkariarazko *Doctrina Uscazar* izenekoan ere agertzen da (ik. Gómez 1991:383).

²⁰ Beriainena da, ohi bezala, gehien hurbiltzen zaion formula: «Iaugoycoaren legue sanduaren Mandamentuac dirade hamar [...] / Lembicicoa Iaugoycua honra, eta adora deçagula. / Bigarrena iuramenturic vanoro eztaguigula. / Irurgarrena ygandeac, eta jayac beguira diçagula. / Laugarrena, ayta, eta ama honrra dizagula. / Borzgarrena, yor ere ill etzezagula. / Seygarrena, Luxuriasco becaturic eztaguigula. / Çazpigarrena, deus evatssi eztaguigula. / Zorcigarrena, yori falso testimoniuric erayqui eztrazogula, eta ez guezurric erran. / Bedrazigarrena, lagunaren emaztea desea eztezagula. / Amargarrena, berçeren gauzaric desea eztezagula. / Amar Mandamentu ohec ençerracen dirade bidatan Iaugoycoa gauza gucien gañean oneristean, eta gueuren proximo laguna gueuroc bezala» (Beriain, *Doctrina...*, 88-89). Baldin eta Materrearenean ikusi behar bada Beriainen ildoko formula zaharago bat («Iaincoaren manamendu sanduac dira hamar. / Lehenbicicoa: Iainco bat dela [...], hura bera [...] onhets, adora eta cerbitça deçagula. / Bigarrena: [...] iuramenturic vanoqui [...] eztaguigula. / Hirurgarrena: igandea eta bertce bestac [beguira ditçagula. / Laugarrena: guerue burhasoac

EN ROMANCE²¹

Estos son los mandamientos que la ley de Dios.....

do christiano l.....

tres primeros, perte.....

tros siete al prouecho.....

1. El primero, amaras a.....

2. El segundo, no juraras en nombre de Dios en bano.

3. El tercero, santificar las fiestas.

4. El quarto, honrraras a padre y madre.

5. El quinto, no mataras.

6. El sexto, no fornicaras.

7. El septimo, no hurtaras.

8. El octauo, no leuantarás falso testimonio ni mentiras.

9. El noueno, no dessearas la muger de tu proximo.

El dezeno, no dessearas las cosas ajenas.

Estos diez mandamientos se encierran en dos en

amar a Dios sobre todas las cosas, y a tu proximo co

.....sno.

/ELIZAREN MANDAMENDUAK/²²

.....eta jayetán meça osso-

.....

.....urtea[n] beyn co[n]fessatcea

.....be cu de[n]poran e...

.....peligroan dago...

Yrur²³

.....

ohora ditçagula. / Bortzgarrena: nehor hii ezteçagula. / Seigarrena: haraguizco obraric ezcontçaz campoan eztaguigula. / Çazpigarrena: deus ebats ezteçagula. / Çortçigarrena: Nehori falseriaric erauz eztiçagula. / Bederatçigarrena: bertceren senharric edo emazteric desira ezteçagula. / Hamargarrena: lagunaren onhasunari guthicia ezcaquitçala» Materre, *Doctrina...*, 7-9), erantsi behar da Beriainen testuan, azken bi aginduetan tokiz aldatuta agertzen direla haren «bertzeren» eta «lagunaren» hitzak; horrezaz gain, hamargaren aginduan aditz forma erraztea erabaki bide zuen, aurreko aginduaren formula bera erabiliz: «desea eztezagula».

²¹ Gaztelaniazko bertsioak oso finkatuta zeuden arren, Beriainek bere aukera teologikoaz baliatuz (Pedro Canisio, Belarmino, Nafar Doktoarea, Soto... aipatzen ditu bereari eutsi ahal izateko), ukitu zenbait egin zion formula honi, indarrean zegoena aldatuta utzirik. Horretan, ez baitu egokitzapenik egiten, fidagarriagoa da Betolazarena: «Los Mandamientos de la Ley de Dios son diez. Los tres primeros pertenecen al honor de Dios y los otros siete al provecho del proximo. / El primero, amaràs a Dios sobre todas las cosas. / El segundo, no juraràs el Nombre de Dios en vano. / El tercero, santificaràs las Fiestas. / El quarto, honraràs padre, y madre. / El quinto, no mataràs. / El sexto, No fornicaràs. / El septimo, No hurtaràs. / El octavo, No levantaràs falso testimonio, ni mentiràs. / El noveno, No desearàs la muger de tu proximo. / El dezimo, No dessearas las cosas ajenas. / Estos diez Mandamientos se encierran en dos en servir, y amar à Dios sobre todas las cosas, y à tu proximo, como à ti mismo. Amen IESUS» (in Arana Martija 1986:519-520).

²² Oso formula berezia atzematen da honako honetan. Kontzeptuen aldetik gehien hurbiltzen zaiona Kapanagarena da: «Ama elexa santearen Ma[n]damentuac ria bost. / Leelengoa meça ossoa ençutea Domequetan, eta iaietan. / Bigarrena confessaetea edoala bere urtean bein edo lelenago erioçao pelibururic bada edo artuco bada ...» (Kapanaga, *Doctrina...*, 12). Beriainena hizkeran geratzen zaio hurbil: «[...] Lembicicoa igandetan, eta jayetán Meza ossoric ençutea. / Bigarrena urtean beyn gutianean confessaça. Yrurgarrena» (Beriain, *Doctrina...*, 89).

²³ Orrialde amaierako hitz soltea, hurrengoaren hasierakoa iragartzen duena («Yrurgarrena» seguruenik).

/KONFESIO JENERALA/²⁴/EN ROMANCE/²⁵

.....ntos apostoles san Pedro y

.....santas que estan en el Pa-

..... padre Confessor que ro-

.....ñor.

(IDENTIFIKATU GABEKOAK)²⁶

.....eardituzte[n]...

.....Iaugoycoaren lau...

.....cioDo

.....tçen jaqui-

.....sun espiri-

.....yzquionac,²⁷

.....

Honaino, beraz, Carlos Labaien editoreak 1614an argitaratu zuen liburuaren azalean aurkitutako dotrinatxoaren berreraiketa.

3. Bada beste formula bat gure literaturan, aurrekoa baino zertxobait lehenagokoa dirudiena, eta arazo bat baino gehiago aurkeztu duen arren, hasieran kalera-tu formatuan argitaratzen dena. «Zannettoren Kredo» bezala ezagutzen dena da.

Kredo edo «Sinestatzen dut» hori *Symbolum Apostolorum diversis nationum linguis expressum* (Erroma, Zannetto, 1614) delakoan agertu zen beste hizkuntza zenbaitetan ondutako bertsioekin batera.

Hau izango litzateke Bidegainek (1967)²⁸ kaleratutako formula honen transkripzioa:

«Cantabria. Biscaya.

1 Sinestasendut Jaun poderosoaren vaytan Creatorearen ceruaren eta lurraren.

2 Eta Jesu Christo vere seme unigenito, jaunaren vaytan.

²⁴ Otoitz edo formula hau («Ni bekataria» alegia) dotrinatxoaren amaieran joaten bada ere, honako honetan, argazkiaren arabera behinik behin, hasierako testuetako bat dela ematen du.

²⁵ Honela dakar Betolazak ondoko zatiari dagokion gaztelarazko pasartea: «[...] à los Santos Apostoles San Pedro, y San Pablo, y al Bienaventurado. N. y a todos los Santos, y a vos Padre, que rogueys por mi à Dios nuestro Señor» (*Doctrina Christiana*, 1596, in Arana Martija 1986:522). «Bienaventurado» delakoa kenduta, berdina da Kapanagarena ere. Beriainek ez dakar erdarazko konfesiorik, baina, euskarazkoan testu honen ildotik abiatzen dela dirudi: «eta çuri Ayta confessoreorri» (Beriain, *Doctrina Christiana*, 95). Guztiarekin ere, Elizalderena da hemengo «que estan en el Paraiso» horren antzeko pasartea eskaintzen duen lehena: «Cerulean diren Sandu guciy, eta neure Aita Confessore orri [...]» (Elizalde, *Apezendaco doctrina*, 18).

²⁶ Ondoko pasarteak zalantza gehien sortzen dutenak dira. Alde batetik, ez dago garbiegi «eardituzte[n]..... Iaugoycoaren lau.....» hitz zatiak beste guztiekin batera zihoazen, eta, bestetik, zail da identifikatzen atal hau.

²⁷ Pasarte hau dotrina ikasteko obligazioaz mintzo dela ematen duen arren (eta, hala balitz, dotrinatxoaren edota azalpenaren hasieran kokatuta egongo zen), «Espiritu Santuaren doaiak» delakoaren zantzuak ere atzematen uste dira bertan.

²⁸ Mitxelenak TAVEN argitaratutakoarekin kontrasta daiteke (1964:163, 3.2.11).

3 Sein ucandubaysen concevituric Spiritu Santu jaunaren obras: eta jayosen virgen andre Dona Mariaren vaytatic.

4 Eta padecituquen Pontio Pilato manuaren aspian, Crucificatu ucandu sen, yl, eta or-siucandusen.

5 Eta jausisen infernura: yrugarren egunean Resuscitatusen ylen vitartetic.

6 Eta ygansen ceruetara: eta dago jarrerit jaun poderosoaren escunean.

7 Eta andica etorricoda vicien eta hilen jusgacera.

8 Sinestasendut Spiritu sanduaren vaytan.

9 Elysa Catolica sanduaren vaytan: Sanduen comunionean.

10 Pecatugucien parcamentuan.

11 Araghiaren Resuscitacean.

12 Eta vici perdurablean.

Amen»

Laugarren zenbakia daraman esaldian koma bat aldatu ohi den bezala,²⁹ «Kredo» honek bestelako egokitzapen testualen beharra ere eskatzen duela esan liteke.

Gainera, Mitxelenak aurreratu zuen hipotesia³⁰ berrestera etorriko litzateke testu-doikuntza. Izan ere, testu idatzietatik jasotzeak ekar ditzakeen akats horietakoa baita orain komentatzera goazena.

Hizkuntz logika guztien aurka, kredo hasi bezain azkar fenomeno hiperbati-koarekin zerikusi gehiegirik ez bide duen arroskeria gisako bat agertzen da bere gordinan: «Creatorearen ceruaren eta lurraren».

Egia esan, ez dakigu noraino izan den inoren kezka, edo noraino garai hartako urrunkerien fruitutzat hartua. Baina badakigu horrelako besterik nekez aurki daitekeela gure dotrinatxoetan. Eta horregatik bakarrik ez bada ere, merezi du begiratu bat emateak.

Garai hartako idazle-moldatzaileek, besterik agian ez, baina honelakoak oso ondo zaindu zituzten. Ikusiak ditugu dagoeneko Labaien edizioaren azalean argitaratua («ceruaren eta lurraren creado...») eta Beriainen («ceruaren, eta lurraren creadorearen»); baina besterenak ere ikus genitzake: Leizarragarena («ceruaren eta lurraren Creaçalea baithan»)³¹, Betolazarena («Ceruaren da lurraren Criadoregan»), Materrerena («ceruare[n] eta lurraren eguilea baithan»), Kapanagarena («ceruen, eta lurraren criadoregan») eta, muga bat jartzearen, katiximagine modernoan aitzindaria izan zen Elizalderen («Ceruaren, eta lurraren Criaçalearen baitan»).

Bistan da inork ez duela hizkuntz jolasik egiteko gogorik erlijio katolikoarentzat hain garrantzitsua eta, are, zinezko muina jasotzen duen formula honetan eta honekin. Bat izan ezik: hain zuzen ere -eta harrigarri-, Erromako argitaratzailea.

²⁹ 1614ko edizioan «[...] Crucificatu, ucandusen yl, eta [...]» agertzen da.

³⁰ «Si aceptamos ahora que el compilador de la obra impresa en Roma se basó en una fuente escrita, no oral, hipótesis altamente probable [...]» (Mitxelena 1964:164).

³¹ Sobran legoke Leizarraga iturritzat hartu duten autoreen bertsiok hona ekartzea: Merulak 1603ko *Cosmographian* jasotzen duena («cervaren, eta lurraren creaçalea baithan»), etab.

Ironiarik gabe, esaldi gatazkatsu horrek honela izan behar zuen hasieratik: «Sinistasen dut Jaun poderosoaren vaytan, ceruaren eta lurraren Creatorearen Eta Jesu Christo vere seme unigenito jaunaren vaytan». Beste dotrinatxo guztietan azaltzen den eskemaren arabera: bi genitibo nagusi «baitan» bakar batentzat.

Eta horrela argitaratu izan ez bazen, transkribatzaileak, euskaraz jakin gabe, ondo irakurtzen ari zena gaizki interpretatu zuelako suertatu zen. Zeren eta, behin arrazoizko hipotesi-aiueren artean jarrita, euskaraz ez zekien bati baino ezin gerta zekioken harako hura.

Edo, hipotesia beste modu errazago batean adierazita, jatorrizko testuan «Creatorearen» hitza, zegokion lerroan sartu ezinik geratzean, goiko lerroa igo zutelara pentsa daiteke.

Are gehiago, arrazoizkoa litzateke pentsatzea bertsiio elebidun batetik jasoa izan zela, ezker aldean erdarazko (gaztelaniazkoa, seguruenik) bertsiioa eta eskuin aldean euskarazkoa. Ohi bezala, erdarazko bertsiioa gehiegi behartu gabe agertuko zen, «hiperbaton» gisakorik gabe, alegia. Baina ezkerreko bertsiio horren inprenta-«kaxek» bortxatuta, lerro-aldaketarik gehienak eskuin aldeko zutabearen gertatuko ziren, bertan sartzen ez ziren hitzak edota silabak goiko (edo beheko) lerroantze eramanez, eta, normalean, lerro hartako testutik parentesi marka huts batez bereiziz.

Jokamolde hori oso gauza arrunta izan da luzaroan, eta adibide garbia aurki daiteke, esaterako, Kapanagaren edozein orrialdeetan. Aski izan bedi begiratu bat ematea haren liburuko seigarren orrialdeari. Goikorako zein behekorako jolasa ikusten da bertan.

Eta hipotesia azken muturrera eramanda, zinez pentsa liteke «Creatorearen» lehendabiziko hizkiaren errepikapentzat hartu zuela transkribatzaileak horrelakoe-tan jarri ohi den parentesiaren lehen zatia,³² hau da, «(» delakoa.

Bestalde, ausartegiak izateko gogorik gabe bada ere, zalantza egingo genuke testuan —eta, dakigunagatik, han bakarrik— agertzen diren *ucandu* problema-sortzaile horiezaz. Mitxelenak zioen bezala, «faltaba todo indicio de que el participio transitivo (*ucandu*) hubiera suplantado en alguna parte al intransitivo en los usos originalmente propios de éste, tal como aparece en tres ocasiones en un texto tan breve como el que comentamos» (Mitxelena 1964, 164).

Ez ote ziren horiek, jatorrian, transkribatzaileak gaizki irakurri edo gaizki pa-pereratutako *ycandu* (buztan laburreko, erdi ezabatuko zein buztan gabeko *ycandu*) modukoak?

Horrela balitz, ez zen erromatar kredo labur hau hain transgresorea gertatuko, eta egingo genuke hemengo hizkuntzaren senak ere eskertuko zuela eta, oraindik ere, eskertuko lukeela.

³² Baldin eta parentesi marka benetan jarria bazegoen, zeren eta ez zen harrizkoa izango inprimatzaileak berak ahaztu edo jarri ez izana, Kapanagaren orrialdeetan agertzen den bezala (14. orrian, esate baterako, pare bat kasu ikus daiteke).

AIPAMENAK

- Arana Martija, Jose Antonio. 1986. «Betolazaren *Doctrina Christiana*» (sarrera eta edizio faksimila). *Euskera* XXXI, 505-526.
- Beriain, Juan. 1621. *Tratado de como se ha de oyr Missa*, Iruñea.
- Beriain, Juan. 1626. *Dotrina Christiana*, Iruñea.
- Betolaza, Juan Perez. 1596. *Doctrina Christiana*, Bilbo. Faksimila eta transkripzioa in Arana Martija 1986 eta Mitxelena 1955: 1988, hurrenez hurren.
- Bidegain, M. Milagros. 1967. «Textos vascos antiguos». *ASJU* I, 188-189.
- Elizalde, Francisco. 1735. *Apezendaco dotrina christiana uscaras*, Iruñea. Liburutxo honen faksimila in *FLV* 65, 1994, 41- 65 (aipamenak, originalaren orrialde-zenbakien araberak).
- Gómez, Rikardo. 1991. «Erronkarierazko dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa». J.A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum, Pars Prior*, Donostia, 375-426.
- Irigaray, Angel. 1963. «¿Se trata de la Doctrina de Sancho de Elso?». *Príncipe de Viana* 92-93, 249-253.
- Kapanaga (= M. Ochoa de Capanaga). 1656. *Exposición breve de la Doctrina Christiana*, Bilbo.
- Materre, Estebe. 1623. *Dotrina Christiana*, Bordele.
- Mitxelena, Luis. 1955: 1988. «La *Doctrina Christiana* de Betolaza (1596)». *ASJU* II, 43-60; orain L. Mitxelena: *Sobre historia de la lengua vasca*, Donostia, 824-837.
- Mitxelena, Luis. 1964. *Textos arcaicos vascos*, Madril.
- Oroz, Francisco J. 1980. «Vicisitudes de un Padrenuestro en vasco en el siglo xvii». *ASJU* 14, 1-23.
- Resines, Luis. 1987. «Valoración catequética de la Doctrina Christiana de Juan Pérez de Betolaza». *BAP* XLIV-3/4, 533-542.
- Resines, Luis. 1997. *La catequesis en España. Historia y textos*. Madril.
- Sarasola, Ibon. 1983. «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos». *ASJU* XVII, 69-212.
- Satrustegi, José María. 1990. «El Credo en versión vasca del s. XVI». *FLV* 56, 205-228.

Patxi Salaberri Muñoa
 J. Ibañez Santo Domingokoa 1, 01006 - Gasteiz
 945-014213
 patxi.salaberri@ehu.es